

## **Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA): VI. liburukien aurkezpena**

Euskal Atlas linguistikoa, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa* deritzana, aleak garatu ahala, argitaratu ahala, Euskal Herriko hiriburuetan aurkezten ari gara aspaldiko urteotan. Seigarren hau Arabako hiriburuan, Gasteizen, edo hor goi lautada honen barreneko ibarretakoek oraindino ohituak gauden izenaz: *Biturian* edo aldaeraren batekin: *Bitorixan*, *Biturien* edo dena den. Hego Euskal Herriko lau hiriburuetatik jira osoa egiten dugu honekin.

Herri hizkeren atlasak esan nahi du herri jakin bateko hiztun naturalek, bertako mintzaira era naturalez jaso dutenek kontzeptu edo gai bat nola izendatzen duten euskaraz jasotzen dela biltegi handi horretan.

Gasteizko hiriburuan aspaldi galdua da ber-bertoko mintzaira, Iruñean bezala, edo ia guztiz, Bilbon bezala. Baionan beste horrenbeste. Hiri nagusietan, eta ez hain handietan ere, transmisioko euskara beti izan da ahulagoa eta urriagoa, albo herri nekazal giroetakoa baino. Landuchio italiarrak hiriburu honetako hiztunez baliaturik bere *Dictionarium* hura egin zuen aldi goiztiarrean ere (1562) erromantzearen eragin sarkorrak irentsirik bizi zen hiri hau. Bertoko euskara naturala biztanleen ezpainenatik aldendu izan denean ere, hizkuntza zaharrak lurraldean josirik utzi du iraganaren testigantza: toki-izenetan batez ere, eta izkribu gutxi batzuetan ere bai, ofiziala ez zen garai haietan.

Euskarak atzera nabaria mendez mende egin ondoren, berriro biziberritzen ari den aldi honetan, zilegi bedi Atlas honen emaitzetariko bat ere agerian eta formalki hemen aurkeztea. Sustrai zaharretatik baitatoz landare berriak eta horietatik kimu berriak. Eta hizkuntza atlas honek ere bere ekarri osasungarria egin diezaioke biziberritze aldi honi.

Arabako lautadan eremu gutxitan iraun du euskarak bizirik XX. mendean, lehen hamarrekotan ere. Gorbeia barreneko herritxoetan (Zigoitia), Araba mendien lautada parteko herritxoetan, Lazarraga bizi izan zen inguruan edo hurbil, eta batez ere Legution eta Oletan. Eta ur isuriak Kantauri aldera doazen ibarretan, Laudio-Okondo aldean bigarren karlistate aldera galdu ziren bertako hizkerak, eta XX. Mendean Orozkotik gorako gunetan. Aramaio da, duen kokagunea duelako batik bat, euskara bizi-bizi gorde duen ibarra, eta horixe da Atlasak Araban hautatu duen herria, bere inkesta ugaria aplikatzeko.

Arabako lautadako hizkeren lekukotasun nagusiak, idatziz heldu zaizkigun apurrak dira, beraz. Aski zaharrak, bestalde. Aberastasun apartekoa dutenak, batzuk. Lazarraga, oraintsu ezagutu dugunaz ostean, Laudioko dotrina ere aipagarria, bertako hizkeraren zahar usain gozo horregatik.

Gure Atlasa ez da bakarra, Arabako euskara bizia bere osotasunean biltzera berandu heldu dena. Gudu aurreko urteetan ere Gasteiz honetako seminarioan genituen orduko ikertzaileak saiatu eta trebeenak: Jose Migel Barandiaran eta Manuel Lekuona. Don Joxe Migelek Zigoitia aldean jaso zituen esaunda bakan haiez aparte, ezer gutxi dugu hemengo hizkera bizien lekukotasunik.

Gure Atlasaren bilketa, XX. mendearen laurogeiko hamarkadaren lehen partekoa da. Bilketarako urte onak, hala ere. Gure informatzaileak gehienak XX. mendearen lehen hamarkada bietan jaioak dira, edo ziren. Gure tradizioko kulturen murgildurik bizi izan zirenak eta industrializazio aurreko bizimodua ondo ezagutu zutenak. Euren oroimenean isuriei esker, aldi horretan transmisioko euskara bizirik zegoen eremuetako hizkeren erregistro aberatsa jaso ahal izan zuen gure Akademiak, eta gaur egun, berez galkorra den herri ondare aberats horren jabe da Euskal Herria eta Europa osoa.

Altxor aberats batek, ugaria izanagatik, baldin ez bada ondo sailkatzen eta erabilgarri jartzen, armiarma eta hauts artean estalirik geratzeko arriskua du. Euskaltzaindiak ahalegin handi bat egin du, gure herri erakundeen babesari esker, ondare hori gizartearen zerbitzutan jartzeko.

Gaur aurkezten dugun VI. liburukia da horren adierazgarri ona. Euskaltzaindiaren webgunean, paperezko euskarri astun honetan baina erosoago kontsultatu ahal izango duzuen. *Soinuen* bertsioa ere badu, urratsez urrats entzungarri jartzen goazena.

Beronen mamiaz Xarles Videgain arduraduna mintzatuko zaizue, Aritz Abaroa teknikariak lagunduta.

Esker onezko agurra eta aitormena EHHA egitasmo honetan hasieratik hona partaide izan diren guztiei. 2005ean zuzendaritza ardura nire gain jarri baino lehen, Euskaltzaindiak ipini zituen zuzendari akademikoak: Jean Haritschelhar, Beñat Oihartzabal eta Andolin Eguzkitza.

- EHHA-ren arduradunak, hasieratik gaurdaino: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain.

- Liburu hau burutu duten teknikariak: Gorka Intxaurbe, Amaia Jauregizar eta Aritz Abaroa.
- Lantaldea: inkesta-egiten, datu-sartzen, mapa-lantzen, soinu-sartzen, eta ediziorako azken bertsioa ontzen jardun duten kide guztiak: Arejita, Adolfo, Atutxa, Isaac; Aurrekoetxea, Gotzon; Camino, Iñaki; Echaide, Ana María; Etxebarria, Jose María; Etxebeste, Izaskun; Haritschelhar, Jean; Letamendia, Juan Antonio; Oihartzabal, Beñat; Segurola, Koro eta Videgain, Xarles.
- Euskaltzaindiaren informatika taldea, Iñaki Kareaga buru dela.

Beren-beregi eskertu nahi nituzke EHHA egitasmoari babesa eman diotenak erakundeak, hasieratik gaurdaino:

- Eusko Jaurlaritza,
- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta Nafarroako Gobernua.
- 1994az geroztik urte guztiez Euskaltzaindiaren gisa horretako egitasmoentzat bere laguntza eman duen Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.
- Urte batzuetan lagundu duten baita: Akitaniako Kontseilua, Europar Batasuneko Hedadura Gutiagoko Hizkuntzen Batzordea, Frantziako Irakaskuntza eta Ikerkuntza Ministerioa, Europako Harremanetako Ministerioa, eta Baionako Euskal Ikerketa taldea (CNRS, Michel de Montaigne - Bordele 3eko Unibertsitatea eta Paueko eta Aturriko Unibertsitatea – UPPA).

Gaurdainoko argitaratze ibilbideak, SEI liburukiotan laguntzaile nagusi izan dugun Laboral Kutxa aurrezki etxeari.

Zurea da hitza, Xarles

Adolfo Arejita  
2015-02-27